



Atleta bat hondartzan

Garin, Ion; Gosá, Alberto; Rubio, Xabier; San Sebastián, Olatz

ARANZADI Zientzi Elkarteko biologoak

Euskal Herriko anfibioen artean (arrabio, apo, igel, uhandre) apo bat nabarmentzen da, duen ahalmen fisikoa dela eta: apo lasterkaria. Korrikaldi motzen bidez mugitzen da, baina, atletek ez bezala, eguneroko arriskuetatik bizirik irteteko erabiltzen du batez ere gaitasun hori. Hala ere, korrikalari ona izanagatik, ez dago desagertzeko arriskutik salbu Euskal Herriko kostaldean.

ARRISKUEI AURRE EGITEKO ETA GAINERAKO APOEKIKO LEHIA SAIHESTEKO, ezaugarri atletiko bereizgarriak garatu zituen apo lasterkariak: hanka ohi baino motzagoak eta ezohiko bizitasuna. Ezaugarri horiek distantzia txikietako abiadura handiko korrikalari bihurtu zuten. Horrek lehen hozkada eragozteko gaitasuna ematen dio apoari; beharbada, baita bigarrena saihesteko eta ondoren inguruko azaleko putzu batera jauzi egiteko ere. Zorte pixka batekin, harrapariak muzin egingo dio uretan sartzeari.



O. SAN SEBASTIÁN

lhes egiteko ez ezik, beste egoera batzuetan ere egiten du korrika. Adibidez, itzal bila harriz harri —plastikotik adreilura gaur egun— ibiltzeko. Izan ere, eremu ireki eta eguzkitsuetan bizi da. Nolanahi ere, korrika egitea espeziearen ezaugarri bilakatu da.

Lasterka etorriko zen, seguru asko, Europara ere. Asiakoa da jatorriz, baina egun Europako mendebaldean bizi da, eta iberiar penintsulako klima mediterranea du gustukoen. Hala ere, klima heze eta freskoagoak dituzten aldeetan ere aurki daiteke, bai eta latitude garaia goetan ere. Iparraldetik sartu zelako da hori, eta penintsulako

klima aldakorra delako. Populazio horiek, hain zuzen ere, balio handikoak dira iberiar penintsulan.

Euskal Herrian, bi lekutan

Euskal Herrian bi eremutan bizi da apo lasterkaria; oso egoera desberdinetan bizi ere, bizidun-kopuruari eta hartutako azalerari dagokienez. Ebroko erroan populazio arrunta —mediterranea— bizi da, osasuntsu itxuraz. Kostaldean, berriz, Kantauriko populazioa bizi da, egoera kaskarrean. Horregatik, kostaldeko apo lasterkariak gure arreta guztia eskatzen du —kudeaketa-neurri egokiak, adibidez—, bizirik irautea nahi badugu. ➔

Garai batean azalera handiagoa estaliko zuen, seguru asko, baina gaur egun bi gunek txiki eta isolatuta soilik bizi da: Getxoko Gorrondatxeko hondartza eta Txingudin, zehazki Plaiaundiko Parke Ekologikoko eta Jaitzubiako padura txikietan (Irunen eta Hondarribian). Horiez gain, Kantauriko antzinako populazio hark Iparraldean hartzen zuen eremuaren lekukoa Akitanian dago, Landak inguruan. Aitzitik, Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak haien artean bezain isolatuta daude elkarrengandik Landetako populazio-guneak ere.

Bizimodua hondarretan

Apo lasterkaria desagertzetik salbatzeko, lehen egin beharra egungo egoeraren analisia egitea zen. Horixe da, hain justu, Aranzadi Zientzi Elkartean bi urtez egin duguna: Txingudiko badian dagoen populazioa ikertu.

Kostaldeko apoen bereizgarriren bat aipatu behar bada, habitata da: alde batetik, hondartzetako zoru hareatsua, askea eta hain aproposa higitzeko nahiz babesa bilatzeko; eta, bestetik, ibaiek garraiatutako eta haien bukaeretan pilatutako lohi fina.

Baina lehenengoa iragazkorra da oso, eta, ondorioz, nekez gertatzen dira ur-pilaketak. Apoak, baina, anfibioa izaki, ura behar du ugaltzeko. Arazo horren aurrean, espezieak bizirik irauteko duen gaitasuna erakutsi digu: apo lasterkaria ugaltzeko gai da urez gainezka dauden inguruko soroetan, pista eta

bideetako potxingo zein bazterretan, baita autoen gurpilek utzitako azterretan ere. Ia edozein lekuk balio dio baldin eta azalekoa eta eguzkitsua bada. Ugaltze-leku ugari izate horrek, gainera, aukera ematen dio harraparietatik urrun egoteko eta beste anfibioen larben lehia saihesteko.

“apo lasterkariaria edozein lekuk balio dio ugaltzeko, baldin eta azalekoa eta eguzkitsua bada”

Ugaldu ere korrika

Putzu horiek azkar lehortzen dira, ordea, eta, ondorioz, ugalketak arrakasta izateko, larbek ere azkar garatu behar dute. Martxotik hasi eta ekaina arte, eurialdietan eta tenperatura goxoak direnean ugaltzen da apo lasterkaria, orduan sortzen baitira putzuak hareatzan.

Gauetz putzuetara hurbiltzen dira arrak, eta kantatzeari ekiten diote norberak aukeratu duen lurraldera emerentzako erakarri nahian. Sortzen diren koroak, metal-soinukoak, ikaragarriak dira. Plaiaundin eta Jaitzubian, esaterako, ehundik gora apo elkartzen dira.



I. GARIN



I. GARIN

Emeak geroago gerturatu dira, eta, hautagairik onena aukeratu ondoren, arrak emeari, besapeetatik helduta, besarkada ematen dio —anplexo deritzen akoplamendua gertatzen da—. Arrautza-sortak 2.800 eta 4.000 ale arteko lokarri luzeak eta lingirdatsuak izaten dira, eta putzuen hondoan dauden adar eta landareetan, edo, besterik



I. ALVAREZ MALDONADO

Nolakoa da?

- Gehienez 10 cm luze den anuroa. Emea handiagoa da arra baino.
- Begi-nini horizontala du eta irisa berde-horixka.
- Parotido handiak, giltzurrun erakoak eta arre-gorritzak.
- Bizkarrezurrean marra argi bat du.
- Bizkarraldeko kolorazioa nagusiki berdexka da, baina oso aldakorra da inguru-nearen arabera: berde bizia, berde-horixka, arrea, arre-horixka edo arre-gorritzak.
- Sabelaldea argiagoa, normalean zuria edo horixka.
- Atzeko hanka motzak, bereziki prestatuak korrikaldi motzak egiteko.

Estatusa: EAEn, Galzoriako Espezieen Euskal Katalogoan, Txingudiko populazioa kalteberatzen sailkatuta dago.



Martxotik hasi eta ekaina arte, eurialdian eta tenperatura goxoak direnean ugaltzen da apo lasterkaria, orduan sortzen baitira putzuak hareatzan. Behean, eskuinean lrungo obra-eremu bateko putzuan jaiotako apoak, metamorfoseatu berriak.


D. SAN SEBASTIAN



I. GARRIN

nahiz eta lurrean dauden zartadurak eta beste animalien gordelekuak eta habiak ere erabiltzen dituzten. Babesleku horiek behar-beharrezko dituzte negu gorria datorrenean. Izan ere, azarotik martxora, gaueko tenperaturek nabarmen egiten dutenean behera, kostaldeko populazioak loaldia hautatzen du, hau da, hibernazioa. Baina udan ere arazoak izan daitezke beroegiak eta lehorrak direnean, joan den urtekoa bezalakoa. Orduan, apoek, bizirik irauteko, ezkutalekuetan eman behar izan zuten udaldia.

Beste anfibio-populazioekin gertatzen den moduan, hiri-eremuaren zabal-kuntzak zatikatu eta ikaragarri murriztu du apoaren habitata. Horren kausaz, giza jatorriko bigarren mailako habitatan topatzen ditugu orain apoak, hala nola baratzeetan, parkeetan, obra-eremuetan eta betelanetan. Ondorioz, premiazkoa da apo lasterkariaren kostaldeko populazioen kudeaketa-plana abian jartzea, Txingudiko badian aplikatzeko. Beste hainbeste gertatzen da euskal kostaldeko beste toki batzuetan, Gorrondatxen adibidez.

Aipatutako planaren ardatz nagusiak egun Euskal Herrian arriskuan dauden beste anfibio-populazioak kontserbatzeko martxan dauden ekimenen antzekoak dira. Laburbilduz, habitata hobetzea eta berreskuratzea; esate baterako, espezieak ugaltzeko bereziki diseinatutako putzuak eratzea, populazioen gorabeheren jarraipena urtero egitea eta haien ekologiaren landa-ikerketa egitea. Halaber, ezinbestekoa da espeziearen azterketa genetikoak egitea, horrek aukera emango baitigu apoaren jatorria, barne-egitura eta gainerako populazioekiko duen berdintasun-maila eza-gutzeko. 

gabe, hondoan uzten dituzte. Eta handik aste betera edo, zapaburu beltz-arrekkak jaiotzen dira. Zapaburuak detritusez eta alga mikroskopikoz elikatzen dira.

Ur-fasea burutzeko, batzuek 25 egun baino ez dutela behar ikusi dugu Txingudin. Kontuan izan behar da klimak, garaierak eta bizi direneko latitudeak apo lasterkariaren larba-zikloa baldintzatzen dutela.

Garatzeko behar duten denboran tokian tokiko eguraldiak eta hezegune bakoitzaren ezaugarriek eragiten dute. Eguraldiari dagokionez, batez besteko tenperatura eta euri-maila dira garrantzitsuak, eta leku jakin batean aldagai horiek zenbatekoak izango diren iragartzea oso zaila da. Hezeguneen ezaugarri dagokionez, berriz, lurzoruen izaera eta sakonera hartu behar

“premiazkoa da apo lasterkariaren kostaldeko populazioen kudeaketa-plana abian jartzea, Txingudiko badian aplikatzeko”

dira kontuan. Eta denbora horrek finkatzen du, ezbairik gabe, lehorrerako bidea hartzen duten apotxoaren tamaina: 6 eta 12 mm bitartekoa, Txingudin neurtu dugunaren arabera.

Ikerketan ikusi dugu, bestalde, apoak oso trebeak direla zuloak egiten eta lurra hondeatzen. Hain justu, bizileku dituzten zoru arin eta hareatsuak arras egokiak dira babeslekuak sortzeko,